

noaua

**36ko gerraren inguruko
ikerketa burutzeko
boluntarioak behar dira**

**“Txerto emozionala”
hitzaldi zikloa,
Hitz Ahoren eskutik**

**Zailtasun guztien gainerik,
sagardotegiak zabalik**



“Gu ere patera batean iritsi ginen”

Kale gorrian zeuden zortzi gazte

Usurbilgo Elizak utzitako bi etxebizitzetan bizi dira orain

Freskagarri Naturala!

Sagardo berriak dasta ditzakezue segurtasunez gure sagardotegian!

Betiko Sagardoa

SAIZAR

Sagardotegia www.sidrassalzar.com

URDAIRA

Sagardotegia

OSTIRAL, LARUNBAT ETA IGANDETAN irekita

osasun neurri guztiekin **ERRESERBA EZAZU!**

Aginaga 943 37 26 91

%100 bertako sagarra

OSTIRAL, LARUNBAT ETA IGANDETAN IREKITA (ERRESERBAREKIN)

osasun neurri guztiekin

Txotxetik sagardoa jarraitu usadioa!

AIALDE BERRI

Santuenea,
Telf: 943 36 50 31

SAGARDOTEGIA

SAGARDOTEGIA

aginaga

Sagardotegia

URTE OSOAN ETXEAN EGINDAKO SAGARDOA

ASTELEHENETAN ITXITA

osasun neurri guztiegin

943 36 67 10

info@aginagasagardotegia.com www.aginagasagardotegia.com

Albisteak iruditan

Basurde bat kaxkoan

L arunbat eguerdian, hainbat herritarrek basurde bat ikusi zuten kaxkoan. Antza, menditik beldurtuta alde egin zuen ehiztariengandik ihesi. Udaletxe ondoko autobus geltokiaren markesina apurtu zuela ere uste da, baina ez dago ziurtasun osoz jakiteko modurik. Udarregi Ikastola inguruan ere ikusi zutela jakinarazi zioten herritar batzuk Udaltzaingoari, eta hortik aurrera pista galdu zioten. Mendi aldera itzuli zela uste da.

Ez zen basurdea herri aldean agertzen zen lehen aldia, baina ez da ohiko gertaera ere. Kasu isolatuetan baino ez dira agertu azken urteetan.



Antza denez, menditik beldurtuta alde egin zuen. Ehiztariengandik ihesi edo.

Laburrean

Intzidentzia-tasak beheruntz segitzen du

Otsailaren 24tik martxoaren 1era ez zen Covid-19 kasurik atzeman Usurbilen. Intzidentzia-tasa 158'53ra jaitsi da (EAEko tasa 251'08koa zen martxoaren 2an). Oinarriko birsorkuntza-tasaren joera ere beherantzkoa da: 0'78 (Usurbilen 0'48an dago).

Covid-19a dutenentzat, hondakinen bilketa berezia

Covid-19a duen norbait izanez gero etxean, Atez Ateko bulegora deitzea eskatzen du Udalak (900 776 776), hondakinak aparte biltzeko. "PCR probaren lehenengo emaitzaren zain bazaude, ez atera hondakinik", eskatzen du Udalak.

Udal dirulaguntzen plan estrategikoa

Dirulaguntzen plan estrategikoa eguneratzea adostu zen aho batez otsailaren 25eko osoko bilkuran. Covid-19ak testuingurua erabat aldatu duenez, eguneratzea onartu da, lerro berriak abiatzeko. Xehetasun gehiago, datorren astean.

noaua

Kultur Elkarte
Bordaberri, 3 - Eguzkitzaldea. 20.170 Usurbil
943 360 321 /// elkartea@noaueus /// www.noaueus
Jendaurrako ordutegia: 10:00 - 14:00 / 16:00 - 19:00 astegunetan

Elkarteko lehendakaria:
Idoia Torregarai.
Aldizkari koordinatzailea:
Imanol Ubeda.
Idazkaria: Alaitz Aizpurua.
Diseinua: Erroitz S. L.

Erredakzio kontseilua:
Imanol Ubeda, Aritz Lasarte.

Publizitatea: Beatriz Alda,
publizitatea@noaueus

Banaketa: Iñaki Irazusta,
Iban Maritxalar.
Tirada: 2.930 ale.
Lege-Gordailua: SS-668-96
ISSN: 1136-6818.

Inprimategia: Antza. Zirkuitu
Ibilbidea, 2. 20160 Lasarte-Oria.

Harremanetarako:
erredakzioa@noaueus



Gipuzkoako Foru Aldundia



Euskal presoak
Euskal Herrira!



Ainhoa Azpirotz Eizmendi

Herriko adineko bi emakumek Anaerrekako bidean egin dute topo.

- Egunon!
- Hara, hemen al haiz hi ere?
- Bai, eguneroko buelta ematera etorri naun, baina gaur goizago. Horregatik egin diñagu topo.
- Ni ere egunero etortzen naun. Batzuetan buelta luzea egiten diñat, aizkolariaren egurrak dauden lekuraino, eta beste batzuetan motzagoarekin konformatzen naun.
- Bai, nik ere ohitura hartuta zeukanat eta gutxitan huts egiten diñat.

Herriko bi gizonezko helduk Bizkarre inguruan egin dute topo:

- Iepa motel! Zer *habil*?
- Hementxe, atzo konpondu nian bizikleta eta Andatza aldera joateko asmoz nabilek.
- Ez *dik* giro txarra egiten bizikletan ibiltzeko, ez.
- Eta gainera, azkeneko egunetan ez *dik* euririk egin eta lokatzik ez *dek* egongo.
- Hala *dek*, bai. Beno ba, ondo ibili eta gozatu.
- Saiatuko gattuk. Aio!

Txiribogako petrilean herriko bi mutil gazteren arteko elkarrizketa.

- Hi, aurtengo Santixabeletako zeozer antolatzen hasi behar al *diagu*?
- Ez zekiak, baino elkartu be-

GattuNk “N”rik gabe geratzen ari da



“Konturatu gabe, belaunaldiz belaunaldi, zerbait galtzen ari gara; hitanoa, hika, pobretzen ari da”.

AINHOA AZPIROTZ

“GattuNk; ‘u’ eta ‘k’ arteko ‘N’ hori galtzen ari gara, horrek dakarren guztiarekin”

hintzat egin beharko *diagu*.

- San Ferminak ez *dituk* ospatuko eta Santixabelak ere auskalo.
- Beno, besterik ez bada iazko antzeko zeozer egin *zitekek*, kultur bira eta mota askotako ekitaldiak.
- Jai Batzordea noiz elkartzekoa den galdetu beharko *diagu* udal-letxean.

Herriko bi neska gazte autobus geltokian hizketan.

- Azterketako gai bat ez *dut* ondo ulertzen. Orain bidean karpeta atera eta ea esplikatzan *didazun* azterketa baino lehen.
- Estatistikakoa esan nahi al *duzu*?
- Bai, Cronbachen alpha.
- A bai, test edo azterketa baten fidagarritasuna edo barne trinkotasuna neurtzen *du*. Ez

da zaila, ariketa pare bat egiten *badituzu*, segituan ulertuko *duzu*.

- Ados. Eta hau da formula, ezta?
- Bai, horixe da.
- Ederki, eskerrik asko.

Arrandegiko ilaran hizketan ari dira emakume heldu bat eta gizon heldu bat.

- Eremu gorritik atera omen *gattuk*.
- Bai, hala esan *diten*. Baina halere, neurriekin segi beharko *diñagu*.
- Guri ez *zaiguk* gertu-gertuan inor tokatu, baina gorrian egon baldin *bagaituk* herrian baten batzuk pasako *ziaten*.
- Bai, jendea ibili den ambulatortira joan eta proba egiten.
- Kontua *dek* nola pasatzen dan; batzuk sintomarik gabe ia konturatu gabe pasatzen *ditek*, eta beste batzuk, berriz, gaizki; sukarra, gorputzaldi txarra...
- Bai, eta ezin *diñagu* aukeratu. Tokatzen dena tokatu eta aurrea egin beharra *zagon*.

Herriko bi gazte, bata mutila eta bestea neska, kiroldegira bidean gora doaz.

- Asteburuan partidua al *daukazue*? –galdetu dio neskak mutilari.
- Bai, kanpoan jokatzen *diagu* –erantzun dio mutilak neskari.
- Noren kontra jokatzen *duzue*? –berriz neskak mutilari.
- Ez zekiak seguru, baina uste *diat* Zarautzera joan behar *diagula*. Gaur esango *zigutek* –mutilak bueltan neskari.

Konturatu gabe, belaunaldiz belaunaldi, zerbait galtzen ari gara. Hitanoa, hika, pobretzen ari da. Adineko bi emakume noka garbian, bi gizon heldu elkarri toka, bi mutil gazte ere bai, baina... bi neska gazte zuka. Gizon-emakume helduak elkarrekin toka-nokan, bi neska-mutil gazteak, berriz, hortik urruti: mutila neskari toka –neskaren belarrietara egiten duen minaz konturatu ere egin gabe, mutilen hika, nokarik ez dakielako; eta neska mutilari zuka, tokarik ez dakielako. Zerbait galtzen ari gara; hitanoa bera, emakumeen arteko noka eta gizonen emakumeengana zuzentzeko noka. Zerbait galtzen ari gattuNk: “u” eta “k” arteko “N” hori galtzen ari gara, horrek dakarren guztiarekin.

Alazne Arruti Bengoetxea

Ainhoa Azpirotz Eizmendi

Ugaitz Agirre Zapirain

Luis Aranalde

Komikia



EAJ: “Harane futbol zelaiko harmailak eta eserleku egokiak jartzea epe motzean egin daiteke”

Foru Funtsaren likidazioarekin, Usurbilek urrian aurreikusitakoa baino 257.318 euro gehiago jasoko ditu Gipuzkoako Foru Aldunditik. “Albiste on honen aurrean, kopuru hau EAJren udal taldeak aurtengo aurrekontuetarako aurkeztu zituen proposamenak martxan jartze-ko erabiltzea eskatzen du, udal erregistroan aurkeztutako proposamenaren bidez”.

2020ko udal aurrekontuetan, EAJ-PNVren hiru proposamen jaso ziren baina Covid-19aren-egatik ez ziren gauzatu:

■ Ugaldea industrialdearen a-tzetik, Kaxkotik Zubietarako bidegorria egitea.

■ Etxealdia auzoko irisgarritasunari bultzada ematea.

■ Bizikidetzeta/Memoria lantze-ko ekimenak gauzatea.

Hauetz gain, EAJk beste hainbat proposamen berri aurkeztu zituen, 2021eko udal aurrekontuan jasoak izan zitezten:

■ Banda Zabala landa eremue-



Usurbilek 257.318 euro gehiago jasoko ditu Foru Aldunditik. Diru horren zati batekin, “Haraneko harmailak jartzen hastea” proposatu du EAJk.

EAJ-PNV

“Covid-19ak garbi adierazi digu ikuslegoa Haranera bertaratzeko arazoak izan direla, eserlekurik ez dagoelako”

tan bermatzea.

■ Etxealdiako zubia luzatzea.

■ Harane futbol zelairako harmailak eta parke zein pasealekuetan eserleku egokiak jartzen hastea.

Alderdi jeltzaleak gogora ekarri nahi duenez, “171.000 euroko kopurua da orotara, sei

partidetan banaturik. Oraindik ere bideratu daitezkenak. Foru Funtsaren kopurua baliatuz. Horretarako borondate politikoa balego”, EAJk udaletxean duen lan-taldeak adierazi duenez.

Harane futbol zelaiko harmailak eta pasealekuetan eserleku egokiak jartzea epe motzean betetzekoak direla deritza.

“Haranen harmailak jartzen hasteko ez dago aitzakiarik”

“Covid-19ak garbi adierazi digu kurtsio berrian ikuslegoa Harane zelaira bertaratzeko arazoak izan direla, eser-

lekurik ez dagoelako”. Hau konpontzeko, beharrezkoa den proiektua idatzi eta gauzatea eskatu du EAJk, “Foru Funtsaren kopuruaren zati bat horretara bideratuz”.

Eserleku egokiak denontzat

Herriko parke eta pasealekuetan jarri diren eserleku berriak egungo estetika modernoari lotuta daudela dio EAJk. “Eserleku hauetako batzuk ordea, ez diote adineko pertsonen edota mugikortasun arazoak dituzten beharrei erantzuten; ez dutelako ez bizkarralderik, ez besoentzako euskarririk”. Horregatik, estetika hutseko eserlekuak baino lehentasun handiagoa izan behar dute eserleku egokiak edukitzea, “bai esertzeko unean eta bai altxatzerakoan”.

Hau zuzentzeko, EAJk 6.000 euroko partida bat gordetzea proposatu du, “eta hau ere gauzatu daiteke aurrean, ahal bada uda aurretik, Foru Funtsa erabiliz”.

Ontzi arinak eta papera biltzeko poltsak banatzen hasi dira



Martxoaren 1ean hasi ziren poltsak banatzen.

Poltsa hauek aurretik eskatu behar dira, Atez Ateko bulegora deituz edo e-posta idatziz. As-telehenetan egingo dute poltsen banaketa, aurreko astean jasotako eskaerei erantzunez.

Poltsak eskatzeko

■ Telefonoz: 900 776 776.

■ Whatsapp mezu bat bidalita: 606 501 024.

■ Atezate@usurbil.eus helbidera idatzita.

Sutea Barrenetxe aroztegiaren kanpoaldean



Ez zen inor zauritu baina sugarrek kalte materialak eragin zituzten.

Martxoaren 2ko goizaldean gertatu zen. Sute batek Aliri bidean izan ohi den lasaitasuna zapuztu zuen. Ertzaintzak jakinarazi zuenez, goizeko 5:00ak aldera piztu zen sua. “Arozte-

gi kanpoko palet batzuetan”, EITBk aditzera eman zuenez. Ertzaintza eta suhiltzaileak bertaratu ziren eta egunsentirako sutea kontrolpean zen. Sugarrek kalte materialak eragin zituzten.

36ko gerrak Usurbilen eragindako ondorioak aztertzen ari den taldea boluntario bila dabil

1936ko gerrak Usurbilen izan zuen eragina aztertu asmoz, taldetxo bat osatu zen iazko udaberrian. Ion Martin, Aitzol Arroyo eta Aitor Azurki dokumentazio-lana egiten aritu dira orain arte, baina zeregin handiak daude aurretik. Eta horretarako usurbildarren laguntza beharko dute. Aurreko astean eskaini zuten prentsaurrekoan, boluntarioen talde bat osatzeko deialdia zabaldu zuten.

Boluntarioen taldean parte hartu nahi duten usurbildarrentzat bilera ireki bat antolatu dute. Martxoaren 3an asteazkena, arratsaldeko 18:30ean Artzabalgo areto handian. Edukiera kontuan hartu behar denez, bilerara joan nahi



Aitor Azurki, Ion Martinek eta Aitzol Arroyok osatzen dute ikerketa taldea.

AITOR AZURKI

“Usurbilgo herriak betidanik izan du auzolanerako grina, eta hori behar dugu: guk bakarrik ezin dugu egin”

duten herritarrek izena eman behar dute lehenbizi, eta ho-

rrerarako e-posta bat bidali behar da 36kogerra@usurbil.eus helbidera. Bilera joan ezin dutenek ere, modu horretara jar daitezke lantaldearekin harremanetan.

Edozein adinetakoak

Dokumentazioaren fasea amaitu eta gero, orain parte

hartzearena ireki behar dute. Aitzol Arroyoren esanetan, fase honetan “testigantzak, elkarrizketa grabatuak, jendeak etxean gordeta dituen argazki edo dokumentuak...” bildu nahi dituzte.

Boluntarioak edozein adinetakoak izan daitezkeela gaineratu dute: “Herriaren ezagutza, baita herritarrena ere, ezinbestekoa izango zaigu lana garatu ahal izateko”. Esku artean dutena “herri proiektu bat da”, eta horregatik da hain garrantzitsua boluntarioen sarea osatzea. Aitor Azurkiren esanetan, “badirudi boluntarioen sare bat gauza oso txikia dela, baina guretzat oso garrantzitsua da: zenbat eta jende gehiago, argazki osatuagoa izango dugulako amaieran”.

Maitelan, inklusioa sustatzen duen kooperatiba

Zaintzaren eta mendekotasunaren sektorearen errealitatea hobeto ezagutzuz asmoz, hainbat diagnostiko eta ikerketa egin ziren Beterri-Buruntza eskualdean. Sektore honetan lan egiten duten eta bazterketa egoeran dauden pertsonak gizarteratu eta laneratuko dituen egitura egonkor bat osatzearen beharra ikusi zen. Horrela jaio zen Maitelan kooperatiba.

Urtebeteko prozesuaren ondoren, 2020ko martxoan Maitelan kooperatiba osatu zen. Bi lan lerro ditu: pertsonen arreta eta zaintza batetik, garbiketa zerbitzua bestetik.

2000. urtea urte zaila izan da kooperatibarentzat, “pandemia egoerak ez baitu erraztu kooperatibaren bideragarritasu-



Beterri-Buruntzako udalen babesarekin abiatu zen Maitelan. Bi lan lerro ditu: pertsonen arreta eta zaintza batetik, garbiketa zerbitzua bestetik.

MAITELAN

Bazterketa egoeran zeuden pertsonen lan munduan murgiltzeko aukera eman die

nean”, azaldu zuten otsailaren 25eko aurkezpen ekitaldian.

“Hala ere, proiektuaren aurkezpen ofizial bat egitea beharrezko ikusten genuen, orain arte bidelagun izan ditugunei eskerrak eman eta eskualdean proiektua ezagutarazteko”. Hernanin eginitako ekitaldian Agurtzane Solaberrieta alkatetate hartu zuen parte.

Gidabaimena

euskaraz

ateratzeak saria

du Buruntzaldean

2020an, 87 lagunek atera zuten gidabaimena euskaraz Buruntzaldean. Azterketa modu horretara egin zuten guztien artean 9 sari zozkatu berri dituzte. Usurbilen, Mattin Aierbe Zubeldia izan da zorionekoa. 400 euro inguruko saria eskuratuko du eta atal teorikoa ateratzen gastatutakoa berreskuratze-ko balioko dio.



Mattin Aierbe Zubeldiak 400 euro jaso ditu azterketa teorikoa euskaraz egiteagatik.

“Txerto emozionala” hitzaldi sorta, Hitz Ahoren eskutik

Martxoan eta apirilean hitzaldiak antolatu ditu Hitz Aho guraso elkarteak, baina hitzaldiok zuzenean beharrean on line izango dira. Covid-19aren testuinguruak eragindako errealitate berriari modu osasuntsu batean erantzuteko gakoak aztertuko dituzte pantailaren bestaldetik. Martxoaren 8an arratsaldeko 17:30ean euskaraz; apirilaren 26an, ordu berean, gaztelaniaz. Hezitzaile, irakasle edo teknikarientzat martxoaren 22rako iragarri dute.

Konfidantza, poza, itxaropena eta maitasuna izango dira hizpide eta balio horiek ez galtzeko eta behar bezala pizteko giltzak eskainiko ditu Nerea Mendizabal psikopedagogoak. Garai hauetara egokitzeko laguntza emango dute, bai eta ziurgabetasun eta ezjakintasun giro honi aurre egiteko tresnak ere.

Hitzaldiotan parte hartu ahal izateko, klik egin beharko zaio esteka bati.



Nerea Mendizabal psikopedagogoak eskainiko ditu.

HITZ AHOREN ESKUTIK

Garai hauetara egokitzeko laguntza emango dute, eta baita ziurgabetasun giro honi aurre egiteko tresnak ere

On line

Lehenik eta behin, udarregi.eus/eu/gurasoak/guraso-eskola esteka jarri beharko du interesa duen orok ordenagailuan edo mugikorrean. Bertan, web orriak eskatutako baldintzak

onartzeari klik egin eta guraso elkartearen orrialdea ireki beharko da. Zoom aplikazio bidez jarraitu ahal izango den hitzaldian sartzeko jarraibideak daude bertan. Hitzaldira sartu botoia agertuko da kolore morez orri horretan, eta horrek zuzenduko du hitzaldira. Printzipioz Zoom aplikazioa ez dago jaitsi beharrik, baina baliteke kasuren batean eskatzea. Kontuan hartu, botoia erabilgarri egongo dela hitzaldiak hasi baino 10 minutu lehenago, 17:20etatik aurrera, ez lehenago.

Antzerki ikastaroa Aste Santu hauetarako

Aste Santu hauetarako proposamen bat dakar Muxurbil antzerki taldeak. Ixabel Agirresarobek eta Andrea Arrutik antzerki ikastaroa eskainiko dute martxoaren 29tik apirilaren 11ra, bost urtetik gorako herritarrentzat zein inguruko herrietako edonorentzat.

8 euro

Astelehenetik ostiralera goizeko 11:00etatik 12:30era eta arratsaldetan 17:00etatik 18:30era klase libreak eskainiko dituzte, hau da, bakoitzak nahi dituen klaseetara joateko aukera izango du. Klaseko 8 euro izango dira eta segurtasun neurri guztiak beteko dituzte.

Harremanetarako

Hona interesatuentzat kontakturako bi telefono zenbakiak:

■ Ixabel Agirresarobe:
675 712 383.

■ Andrea Arruti:
650 614 380.

Urbil doako maskarak banatzen hasi da bezeroen artean

Bisitari guztien segurtasuna bermatu nahi du era honetan, “osasun agintariak gomendatutako segurtasun eta higiene-neurriekiko zentroaren konpromisoa nabarmentzearekin batera”. Ekimen honi esker, bezero askok diru bat aurreztuko dutela diote, maskarak

musu-truk jasoko dituztelako.

Maskara eskuratu ahal izateko, Urbilen aplikazioa ezarrita eduki behar duzu eskuko telefonoan. Behin hori eginda, “Bezeroenganako Arreta Gunean erabiltzaile bakoitzari esleitzen zaion kode pertsonala erakutsi besterik ez da egin behar”.

Desinfection Monitored zigilua eskuratu du Urbilek

Urbilek SGS Desinfection Monitored zigilua du. Covid-19aren kudeaketan, baimendutako zentroa dela bermatzen du, “erosketarako eta aisialdirako Gipuzkoako toki seguruenetako bat bihurtuz”. Ziurtagiria SGS

enpresak emana da; ikuskapen eta ziurtapenean liderra dena.

Urbilek aditzera eman duenez, “aspalditik murgilduta gauden #UrbilKonpromisoa proiektuan eta bere ingurunearekin konprometitutako merkataritza-gune izaten jarraitzen dugu”.

BORDATXO
taberna

Pintxo Bereziak
943 37 10 42
Zubiaurrenea 5

Zuen publizitatea hemen

943 360 321

publizitatea@noaua.eus

URDAINTZI S.L.
Eraikuntzak

649 43 54 75
943 36 72 64

ERAIKUNTZAK-OBRAK-ERREFORMAK

Martxoko horoskopoa

Hitzak: Barretartia. Irudiak: Ainara Azpiazu Aduriz Axi.

Puntapaxeko sorginaren EROskopoa**ARIES**

Martxoak 8 gerturaten ari da eta aldarrikatzeko gogoz zaude.

Hileko aholkua: Une aproposa da beti nahi izan duzun megafonoa erosteko, baina mesedez, ez erabili etxean!

**CANCER**

Urtebete koronabirusa gure bizitzara etorri denetik, eta dagoeneko kokoteraino zaude.

Hileko aholkua: Pentsatu egoera honek pertsona hobea egin zaituela... edo agian ez?

**LIBRA**

Azken hilabeteetan kirola zure pasioa bihurtu da, baina neurria hartu behar diozu.

Hileko aholkua: Erritmoa jaitsi pixka bat, martxa honetan bizikleta estatikoa ere mugituko duzu eta!

**CAPRICORNIUS**

Gogogabetuta zabilta, ezertarako indarrik gabe.

Hileko aholkua: Batzuetan ezer egin gabe egotea ona da, baina hozkailua ohearen ondora ekartzea gehiegitxo da, ez duzu uste?

**TAURUS**

Aurten aitaren eguna, martxoaren 19a, jai eguna izango da eta aukera aprobetxatu berarekin egoteko.

Hileko aholkua: Egiozu behingogatik opari original bat!

**LEO**

Sagardotegi garaia arraroa izaten ari da, baina zuk ez duzu aukerarik galtzen bertara joateko.

Hileko aholkua: Laster bertan kontratatuko zaituzte!

**SCORPIUS**

Ez dira garai onenak maitasunarentzat, eta faltan sumatzen duzu zure crush-arekin intimitate pixka bat izatea.

Hileko aholkua: Udaberriko tenperatura goxoak baliatu zirriak zelaian edo meta-azpian egiteko!

**AQUARIUS**

Erronka berriei ekiteko garaia duzu hauxe, baina ez dakizu oso ondo nondik nora joan.

Hileko aholkua: Zer iruditzen zaizu behingoz krocketak egin ikasten baduzu?

**GEMINI**

Desiratzen zaude udaberriko oporrak iristeko, baina koronabirusa dela eta beharbada ezingo duzu nahi duzun tokira bidaiatu.

Hileko gomendioa: Maite ditut maite gure bazterrak...

**VIRGO**

Diru kontuekin adi ibili beharko duzu hilabete honetan, erraz ihes egingo baitizu.

Hileko aholkua: Zaindu ezazu diru-zorroa baina noizean behin koadrillakoei erronda ordaindu, aprobetxategi bat izan nahi ez baduzu behintzat.

**SAGITARIUS**

Udaberria gerturaten ari da eta zure alergiak ez du itxura onik, baina lasai egon, izarrak zure alde daude eta.

Hileko aholkua: Maskarilla polenaren aurkako lagunik onena izango duzu. Ikusten? Pandemiak gauza onak ere baditu!

**PISCIS**

Kezkatuta zaude urte bat gehiago beteko duzulako eta zahartzen ari zarela, baina ez duzu zertan triste egon.

Hileko aholkua: Pentsatu berri ez zarea izango orain zaren bezain gazte!

Josue
Igeltseritza

606 37 21 05

Atallu pol.28 USURBIL

www.noaua.eus

USURBILGO ATARIA

GAR

GRUPO MONROY

BERRITZE ZERBITZU INTEGRALAK

628 45 78 39

reformasmonroy@hotmail.es

TXARAMUNTO 14, 2 C USURBIL

ARRANDEGIA

PELLO

ASTEARTETIK-LARUNBATERA

8:30-13:30

EGIN ZURE ESKAERAK WHATAPP-ETIKI

650 31 31 91 USURBIL

“LEINNen esploratzen irakasten dizute, erabakiak hartzen eta barne beldurrak kentzen”

Paula Sevillano (Usurbil, 17 urte) Lidergo Ekin-tzaile eta Berrikuntza (LEINN) graduako lehenengo maila ari da ikasten Enpresagintza Fakultatean, Bidasoako campusean, Irunen.

Definitu apur bat zure burua: non egin dituzu orain arteko ikasketak? Baduzu hobby edo zaletasunik?

Paula Sevillano: Orain arte Donostian ikasi dut. Nire denbora librean igeriketa egiten dut eta familia eta lagunekin denbora pasatzea gustatzen zait.

Zergatik aukeratu zenuen LEINN gradua? Eta zergatik Mondragon Unibertsitatea?

LEINN aukeratu nuen bertan ikasteko erabiltzen den metodologia nirekin bat zetorrelako. Bestalde, Mondragon Unibertsitateak konfiantza eta gertutasuna eman zidan lehen egunetik.

Nola baloratuko zenuke LEINNen biziaren esperientzia?

Lehen egunetik joaten gara gure alde ekintzailea lantzen, egunero-egunero. Bidaia hone-



Paula Sevillano Lidergo Ekin-tzaile eta Berrikuntza (LEINN) graduako lehenengo maila ari da ikasten Irungo Enpresagintza Fakultatean.

PAULA SEVILLANO

“Unibertsitate gehien gustatzen zaidana bertako familiaritasuna eta gertutasuna da”

tan ezinbestekoa da LEINNen laguntza, izan ere heldutasuna

lantzen eta indartzen laguntzen dizulako, egoera zail eta gogorrak pasaraziz. Esploratzen irakasten dizute, erabakiak hartzen eta barne beldurrak kentzen.

Nola definituko zenuke Enpresagintza Fakultatean jasotzen duzun ikasteko metodologia?

Zer azpimarratuko zenuke?

Gaur egungo beste ikasle-tzat oso ezberdina, baina eraginkorra. Nire ustez, azpimarragarria ematen zaigun erabaki askatasuna da eta parte hartze askatasuna da. Ez dago hierarkiarik, denok rol bera dugu eta horrek segurtasun asko ematen digu proiektu bat aurrera eramateko orduan.

Unibertsitate gehien gustatzen zaidana?

Unibertsitate gehien gustatzen zaidana bertako familiaritasuna eta gertutasuna da. Horretaz gain, bertan dugun erabakitze eta lan egiteko askatasuna da gehien gustatzen zaidana.

Lehen egunetik enpresa bat sortu unibertsitatean eta proiektuak garatu, nola egiten da hori?

15 ikasle elkartu ginen eta Khaos sortu genuen. Khaosi esker, nahi izan ditugun proiektuak aurrera eman ahal izan ditugu eta horrek beti motibatua egotera eraman gaitu. Aldi berean, ekintzaileak izatera bultzatzen gaitu.

“Nire alde ekintzailea indartzen saiatzen naiz”

Zer proiektu mota garatu dituzue LEINN graduaren zehar?

LEINNen barruan, zenbait esparru ezberdinetan parte hartu ahal izan dugu eta horrek ezagutza mota ezberdin asko jasotzeko aukera eskaintzen digu. Proiektu horietako asko ingurunearen zaintzarekin eta teknologia

berriekin loturik daude, nahiz eta proiektu batzuk gauza horiekin zerikusirik ez izan. Hala ere, proiektuak beti zentzuz egiten saiatzen gara.

Atzerriko esperientziarik izan duzue edo izango dituzue? Non? Nolakoa izan dira?

Oraingoz, atzerriko bidaiaren

zain gaude. Berlinera joateko asmoa dugu baina, gaur egungo egoera dela-eta, ez dakigu joango garen.

Zertan ari zara orain? Eta etorkizunari begira zeintzuk dira zure asmoak?

Orain hainbat proiektu ditut eskuartean, baina ez dakit

etorkizunean zein proiektu izango ditudan; hala ere, argi dut jarraian egingo ditudan proiektuak munduaren ongizatera zuzenduta egongo direla. Horretaz gain, nire alde ekintzailea indartzen saiatzen naiz eta nire taldearen ongizatea ere mantentzen saiatzen naiz.

Urdaira: “Jendea badabil sagardotegian”

Sagardo sektorea egoera larrian da Covid-19ak eragindako krisiaren ondorioz. “2020ko martxotik 2021eko otsailera arte 18 milioi euro inguruko galerak izan ditu sektoreak”, Euskal Sagardoak aditzera eman duenez. “Batetik, sagardotegi denboraldia iaz erdiz erdi moztu zelako eta aurtengoa murrizketekin eta martxan oraintxe jarriko delako; eta bestetik, ostalaritza geldirik izanda sagardo salmentak jaitsiera izan duelako”. Aldi berean, egoera berrira egokitu eta aurrera egiteko indarrez dago sektorea. “Erabakiak taldean hartu eta proposamen eta proiektu berriak martxan jarrita”, Euskal Sagardoa jatorri deiturako ordezkariak aditzera eman dutenez.

Usurbilen zabalik dauden sagardotegiekin jarri gara ha-



“Neurri guztiak betetzen saiatzen ari gara, ahalik eta zerbitzurik onena emateko”, Urdairakoek esan digutenez.

URDAIRA SAGARDOTEGIA

“Pitxerretan eskaintzen dugu sagardoa, eta talde txikitan mahaian jarrita egoten dira bezeroak, neurriek hala eskatuta”

rremanetan. Oraingoz hauek dira NOAUA!ren deia atenditu

durenak. Urdaira Sagardotegian esate baterako, lanean jo eta su ari dira. Denboraldia aurrera doa eta neurri berrietara egokitu behar izan dute.

NOAUA! Nola ari zarete aurre egiten maiz aldatzen diren neurriek?

Urdaira Sagardotegia: Ahal du-

gun moduan, gauzak iristen diren heinean erantzuna ematen ari gara. Aldaketa asko ari dira izaten azken aldian eta horietara moldatu behar.

Herritarrek hurbiltzen jarraitzen al dute urtero moduan?

Bai, neurri guztiak betetzen saiatzen ari gara ahalik eta zerbitzurik onena emateko eta jendea badabil sagardotegian. Aforroaren neurriak kontuan izaten ditugu eta gainontzeko neurriak ere betetz zerbizua eskaintzen ari gara. Lehengo konturik ez da zentzu horretan, baina tira.

Txotxera joaterik ez orain. Nola ari zarete moldatzen zentzu horretan?

Pitxerretan eskaintzen dugu sagardoa, eta talde txikitan mahaian jarrita egoten dira bezeroak, neurriek hala eskatuta.

Aginaga: “Jendeak errespetu osoz jokatzeko du”

NOAUA! Neurrietan aldaketa asko izan ditugu azken hilabeteetan. Nola bizi duzue sagardotegi denboraldiaren hasiera hau?

Aginaga Sagardotegia: Guri min gehien egin diguna txotxean ezin kontsumitzea, baina behintzat pitxerretan banatzen dugu sagardoa. Norberak zerbitzatzeko du berea; mahai bakoitzetik bat altxa eta pitxerra betetzen du gero mahaikideei zerbitzatu ahal izateko. Txotxeko giro berezi hori falta da, baina gainontzean gure lan egiteko modua ez dute oztopatzen neurriek eta espazio aldetik ere ez daukagu inolako arazorik distantzia mantendu ahal izateko. Gu gehiago mugatzen gaitu herrien artean libreki mugitu ezin izate horrek.

Bezeroen partetik errespetuzko jarrerak sumatu dituzue?



“Gipuzkoa osotik datorren jendea hartzerako ohituta geunden”.

AGINAGA SAGARDOTEGIA

“Espazio aldetik ez daukagu inolako arazorik distantziak mantendu ahal izateko”

Bai, jendeak errespetu osoz jokatzeko du. Ez dugu inolako arazorik izan zentzu horretan. Egia da jendeari sarreran azaldu egiten dizkiogula arauak eta mu-

sukoa uneoro jarrita eraman behar duela jakinarazten diogula gaizki ulerturik ez izateko, dela komunera joateko, dela pitxerra betetzera joateko. Txotxean ere ezin dutela edan esaten diegu eta zutik ere ezin dela edan.

Herritarrek bakarrik joan ahal izan dute orain gutxi arte, baina gauzak zertxobait aldatu dira, ezta?

Gipuzkoa osotik datorren jendea hartzerako ohituta geunden: Elgoibar, Bergara, Villabona, Irun, Goierri ingurua... Gipuzkoa osoko bezeroak ditugu, sagardotegi handia dugulako eta urte osoan lan egiten dugulako. Bezero kopuru hori lortzea ezinezkoa da inguruko bi edo hiru herrietako jendea bakarrik hartzeko aukera izanda.

Instituzioen laguntza jaso al duzue egoera honi aurre egiteko?

Gipuzkoako Sagardogileen Elkartetik antolakuntza jarraibide batzuk ematen dizkigute. Protokoloan aldaketak dauden bakoitzean bidaltzen dizkigute jarraibide berriak. Lanketa handia ari dira egiten uneoro behar diren neurrien berri eman eta laguntzeko. Deion interesa da neurriak ondo betetzea, egoera honekin ahalik eta lasterren amaitzeko.

Saizar: “Upeletatik eramaten diegu sagardoa pitxerretan”

NOAUA! Denboraldi hasiera erabat nahasia tokatu zaizue aurten.

Saizar Sagardotegia: Aurten ez dugu sagardotegi denboraldia nahi bezala hasi. Gabonen osteko neurri berriekin etengabe egoera berrietara egokitzea tokatu zaigu, eta nahiko nekatuta gaude beti ostalaritza delako guzti honen eragina gehien jasaten ari dena. Badi-rudi argia piztu eta itzaltzeko botoi bat balitz bezala ari direla jokatzeko, orain bai orain ez. Lan asko egiten dugu ostalariok eta horrenbeste itzulungururen kaos bat bizitzen ari gara uneoro. Egokitzapen fasean gaude egunero.

Txotxera joan gabe nola ari da erantzuten jendea?

Upeletatik zuzenean eramaten diegu sagardoa pitxerretan.



“Bezeroek badakite zer dagoen eta errespetuz jokatzeko dute”.

SAIZAR SAGARDOTEGIA

“Herriko jendea asko animatu da, baina inguruko herrietakoak etorri ezin hori guretzat kolpe latza izan da”

Gisa horretan, janaria zerbitzatzeko gain, sagardoa zerbitzatzeko ere arduratzen dira gure zerbitzariak. Upel asko dauzkagu bodegan eta aukeran ematen diegu nolako sagardoa nahi duten, upel ezberdinetakoa probatzeko. Berrikuntza modura joku bat proposatzen diegu bezeroei: probatzen duten upel bakoitzeko sagardoari nota bat jartzea. Dastaketa-esperientzia

tzeaz ere arduratzen dira gure zerbitzariak. Upel asko dauzkagu bodegan eta aukeran ematen diegu nolako sagardoa nahi duten, upel ezberdinetakoa probatzeko. Berrikuntza modura joku bat proposatzen diegu bezeroei: probatzen duten upel bakoitzeko sagardoari nota bat jartzea. Dastaketa-esperientzia

bat eskaini nahi diegu. Bezeroek badakite zer dagoen eta ez dira arauak hausten saiatzen, errespetuz jokatzeko dute.

Herritarren eta orokorrean jendearen erantzuna nolako ari da izaten?

Hasieran nahiko kezkatuta geunden. Guri bezeroengandik gertu egotea gustatzen zaigu, harreman zuzenean, dela txotxean dela jangelan. Uste genuen uneoro eserita egon beharrak jendea desanima zezakeela, baina ikusi dugu orokorrean jendeak gogoia daukela aisialdiaz gozatzeko. Egia esan herriko jendea asko animatu da, baina inguruko herrietako jendea etorri ezin hori guretzat kolpe latza izan da. Hala ere, alboko herrietako jendea orain etor daiteke eta hori nabaritzen hasi gara pixka bat.

Aialde Berri: “Larunbatetan ondo ari gara lanean”

NOAUA! Sagardotegi denboraldia hasi zenetik egoera nahiko nahasia izan da, ezta?

Aialde Berri Sagardotegia: Usurbil eremu gorrian sartu zenean, egun gutxi batzuetako itxiera jasan zuen ostalaritzak. Horrek ez gintuen harrapatu, ostiral, larunbat eta igandeetan egiten baitugu lan.

Nolakoak izan dira asteok?

Ondo lan egiten dugu larunbatetan. Koadrila asko gerturatu dira, eta hori izan da larunbatetako giro orokorra.

Igandetan familia giroa gailentzen da; gure bezero nagusiak igandeetan familiak izan dira-eta. Jende zaharragoa ez da gehiegi hurbildu, beldurragatik edo.

Alboko herrietako jendeak jada sagardotegietara hurbiltzeko aukera dauka. Atzeman



“Bezeroei aukeran ematen diegu: upelekoa edo botilakoa”.

AIALDE BERRI SAGARDOTEGIA

“Orain gehienek egun batetik bestera egiten dituzte erreserbak”

duzue kopuruan igoera hori?

Orain gehienek egun batetik bestera egiten dituzte erreserbak.

Aurreikuspenak egitea oso

zaila da zentzu horretan, baina Lasarteko koadrila batzuk hurbiltzen hasi zaizkigu. Orokorrean beraientzat ere zaila da hurbiltzea, intzidentzia dela eta gorrian daudelako eta ez dakitelako gisa honetako arrazoi batengatik atera daitezkeen. Hala ere, pixkanaka mugimendu hori ari gara nabaritzen, lasartearren aldetik bai behintzat.

Egunez egun dabil jendea. Zuek ere hala ibiliko zarete...

Bai, jakiak egunez egun eskatzen ditugu eta etorkizuna oraindik marrazteke daukagu. Aurtengo denboraldia trakets samar hasi dugu, egoera nahiko zaila daukagu. Joan zen urtean hasi eta bat-batean moztu zen dena, eta aurtengoari esperantzarekin begiratzen genion, baina horrela tokatu da.

Txotx egitera ezin hurbildu, zer diote bezeroek?

Ez dugu inolako arazorik izan. Aukera ematen diegu koadrila bakoitzari pitxerra betetzera joateko; koadrila bakoitzeko pertsona bat beti ere.

Gainera, guk upelak nahiko bereizita dauzkagu jangelatik eta kontrolatzeko erraza da. Horrez gain, aukeran ematen diegu bezeroei: upelekoa edo botilakoa.

“Jendarteak txertoak adina behar ditu sagardoaren balioak: lagunartea, ilusioa, ondo pasatzeko gogoia...”

Xabier Arruti Gipuzkoako Foru Aldundiko Nekazaritza Saileko zuzendariak arduratuta begiratzen die pandemiako hirugarren olatuak ekarriko dituen arazoei.

Gipuzkoako Foru Aldundia jarraipen zehatza egiten ari da sagardo ekoizleek dituzten gabezien inguruan, eta ahal duen laguntza handiena ematen, “hori agian nahikoa ez dela izango jakitun”. Txotx garaian ohiko moduan gozatzeko komeriak daudenez, sagardo kontsumitzen jarraitzeko deia egiten du, modu batean edo bestean izan, “horrela ekoizleak berak lagunduko baititugu”.

NOAUA! Pandemiak bizi-bizi kolpatu du 2021eko txotx garaia. Iaz denboraldi erdia edo libratu zen, aurten hori ere ez. Zein da Foru Aldunditik egiten duzuen irakurketa?

Xabier Arruti: Panorama beltza dela, zoritxarrez. Txertoaren hedatzeak kutsatzeak gutxiko ote dituen esperantzak baditugu, bagenituen, baina



Xabier Arruti Foru Aldundiko Nekazaritza Saileko zuzendariarengana joan den sagardogintza sektoreaz galdezka.

XABIER ARRUTI

Sagardoa kontsumitzen jarraitzeko deia luzatu nahi du, “horrela ekoizleak berak lagunduko baititugu”

dena atzeratzen ari da, eta aurtengo denboraldia nahiko beltz ikusten dugu. Eskertu, estimatu eta aitortzekoa da sagardo elkarteak eta sektoreko beste aktoreak txotx denboraldia sagardo denboraldi bihurtze-

ko egiten ari diren ahalegina, beste formatu batzuk lantzeko, baina ez da erraza, sagardotegietako txotx garaia oso errotuta dagoen tradizioa baita, gurean.

Zer suposa dezake sektorearentzat txotx garaia bertan behera geratzea?

Berez, negozioaren osotasunean, txotx garaia %5a suposatzen du, zenbaki soilak aztertuz. Baina txotx garaia portzentaje hori baino askoz

gehiago da. Txotx garaia da autobusak, tabernak, kontsumoa... Hortxe dago erronka, panorama beltz hori murriztea.

Ekoizleek zer egin, nola jokatu jakiteko ere komeriak...

Erantzun zehatza edukiko banu, emango nizuke. Sagardoa kontsumitzeko hiru bide daude: txotx garaia, taberna edo elkarte gastronomikotatik, eta norberak bere etxean. Lehen biak erabat murriztuak ditugu une hauetan, eta etxean kontsumitu beste aukerarik ez dago. Sagardoak eta txotxak zerbait badute, lagunarteko giro hori da, eta hori gabe... Supermerkatu eta dendetako salmentak handitu egin dira, egia da, baina hazkuntza horrek ez du inola ere txotx garaiaren hutsuneak ekarriko duen zuloa konpentsatuko. Txakolinarekin bestela gertatzen zaigu, gehiago esportatzen da, baina sagardoak oso kontsumo lokala dauka. Negozioa dibertsifikatzea aukera bat izango litzateke, baina hori lortzea ere erraza ez. Oso sagardo gutxi kontsumitzen da Euskal Herritik kanpo.

“Iaz salmenta beherakada konpentsatzen saiatu ginen”

NOAUA! Orain hiru aste jakinarazi zen nola izango zen aurtengo sagardotegi garaia.

Xabier Arruti: Bai. Eta ezin jakin egoerak noiz hartuko duen buelta. Ez etsitzeko animoa ikusten dut elkarteetan, indartsu sumatzen ditut eduki ditudan kontaktuak aintzat hartuz.

Iazko salmenta beherakada konpentsatzen saiatu ginen, deialdi bat egin, sei edo zazpi azpi-sektoreri zuzendua. Aurtengo denboraldia bukatutakoan analisia egin be-

harko da, ea laguntza partida berri bat arautu behar den edo ez. Baiezkoan gaude, eta hala bada, partida hori egiteko gaitasunik ba ote dugun aztertu beharko da, ze horrelakoetan, kaltea jasan dutenei laguntzeko dirua beste nonbaitetik atera edo kendu behar izaten da, eta laguntza beharra sektore askora hedatu du pandemia gaizto honek.

Pandemia iritsi aurretik sagarrondoak landatzeko eta ‘Euskal Sagardoa’ ekoizteko ekime-

na bultzatu zenuten.

Bai, Aldundiak eta Eusko Jaurlaritzak elkarlanean. Euskal Jatorri Izendapenaren aldeko apustua egin zen, bertako sagarrarekin ekoiztutako sagardoa. Bertako sagarra erabiltzeko babesa betidanik egon da, 60.000 euro artekoa hasieran, baina gero 300.000 eurora bitarte handitu genuen laguntza partida hori. Baldintza bakarra zen laguntza horiek jasotzen zituenak euskal jatorri izendapeneko sagardoa ekoiztea. Azken urteetan gorantz ari da

bertako sagarrekin ekoiztutako sagardo kopurua, eta gure helburua Gipuzkoan ekoizten den sagardo guztia bertako sagarrondoek emandako sagarrekin lortzea litzateke. Ez da erraza, sagarrondoek hiru-zpalau urte behar baitituzte fruitua ematen hasteko, eta legegintzaldi honetan zaila izango da helburu horretara iristea. Diru-laguntzak badaude, lurra ere behar da sagarrondoak landatzeko. Gipuzkoako kasuan 750 bat hektarea, hain zuzen ere.



MARTXOAK 4 - 24
Nafar hegoaldeko uzta eskutik eskura

Plateretik baratzerara

Eskaerak:
errigora.eus
☎ +34 848 87 12 23
edo Noaua!n

Apirilaren lehen hamabostaldian jasoko ditugu produktu guztiak.



 Arroitz Olibo olio birjine eta ekologikoa 8 LITROKO OIATEA 33€ (1,65€/L)	 Zainzuriak Zainzuri zuria ekologikoa 8 LITROKO OIATEA 45€ (5,62€/L)	 Zainzuriak Zainzuri zuria ekologikoa 4 LITROKO OIATEA 43€ (10,75€/L)	 Piperrak Piperrak ekologikoa 200g (100g x 2) 37€ (185€/kg)	 Piperrak Piperrak ekologikoa 200g (100g x 2) 34€ (170€/kg)	 Orburuak Orburuak ekologikoa 200g (100g x 2) 77€ (385€/kg)	 Orburuak Orburuak ekologikoa 200g (100g x 2) 53€ (265€/kg)	
 Arbekina Olibo olio birjine eta ekologikoa 8 LITROKO OIATEA 32€ (1,60€/L)	 Kardua Kardua ekologikoa 200g (100g x 2) 29€ (145€/kg)	 Kardua Kardua ekologikoa 100g (50g x 2) 21€ (210€/kg)	 Menestra Menestra ekologikoa 200g (100g x 2) 65€ (325€/kg)	 Barazkiak Barazkiak ekologikoa 200g (100g x 2) 23€ (115€/kg)	 Potxak Potxak ekologikoa 200g (100g x 2) 43€ (215€/kg)	 Potxak Potxak ekologikoa 200g (100g x 2) 35€ (175€/kg)	
 Pikual Olibo olio birjine eta ekologikoa 8 LITROKO OIATEA 19€ (0,95€/L)	 Enpeltre Olibo olio birjine eta ekologikoa 8 LITROKO OIATEA 19€ (0,95€/L)	 Tomatea Tomatea ekologikoa 200g (100g x 2) 21€ (105€/kg)	 Tomatea Tomatea ekologikoa 100g (50g x 2) 19€ (190€/kg)	 Kremak Kremak ekologikoa 200g (100g x 2) 20€ (100€/kg)	 Txitxirloak Txitxirloak ekologikoa 200g (100g x 2) 27€ (135€/kg)	 Arroza Arroza ekologikoa 5kg (2,5kg x 2) 43€ (8,6€/kg)	 Arroza Arroza ekologikoa 5kg (2,5kg x 2) 22€ (4,4€/kg)
 Pasta Pasta ekologikoa 12 PAKETE 35€ (2,92€/pakete)							

NOAUA! KULTUR ELKARTEKO BAZKIDEEN BATZAR NAGUSIA

MARTXOAK 16, ASTEARTEA - POTXOENEAN

1. deialdia 17.30 / 2. deialdia 18.00

GAI-ZERRENDA:

- 1) 2020ko memoria eta balantze ekonomikoak
- 2) 2021eko egitasmoak eta aurrekontuak
- 3) Zuzendaritza Batzordearen osaketa eta onarpena
- 4) 2021 Noaua! Kultur Elkartearen 25. urteurrena
- 5) Galdera erantzunak



Pandemia lehertu zenean kalean zeuden zortzi gazte gure artean bizi dira orain

Kalean bizi ziren gazte atzerritarrei irtenbide bat emateko asmoarekin jaio zen *Lehen urratsa* izeneko programa. Iazko udaberrik zortzi gazte bizi dira Usurbilen, Elizarenak diren bi etxebizitzetan banatuta. Mikel Castander Zabalduz kooperatibako kideak eman dizkigu egitasmo honen inguruko xehetasunak.

NOAUA! “Lehen urratsa” izeneko proiektua bideratzen ari zarete Usurbilen. Egitasmo honen nondik norakoak azalduko al dizkiguzu?

Mikel Castander: Covid-19ak osasun krisi bat ekarri zuen eta kalean baztertuta bizi zen jendeari erantzun bat emateko asmoz sortu zen egitasmo hau. Baliabide ekonomikoak eta materialak jartzeaz gain, giza baliabideak ere ipini dira bazterketa egoeran dauden pertsona hauei laguntzeko xedez.

Programa honi esker, kale gorrian zeuden gazteei irteera bat eman zaie.

Orain urtebete, konfinamendua ezarri zenean, Covid dispositibo batzuk egokitu ziren Donostian, Bilbon eta Gasteiz-



Eusko Jaurlaritzako Enplegu eta Gizarte Politiketako Saila da *Lehen urratsa* programaren sustatzaile nagusia. Konfinamenduaren aurretik kalean bizi ziren pertsonen laguntzea du xede nagusi. Beatriz Artolazabal sailburuaren esanetan, osasun-krisiak “aukera bat eman digu etxegabeen inklusioan lagundu ahal izateko”. Argazkia: euskadi.eus

MIKEL CASTANDER

“Atzerriko gazteen bizi kalitatea hobetu asmoz, ‘Lehen urratsa’ ekimena jarri zen martxan. Etxebizitzarik gabe eta oso egoera kaxkarrean zeuden gazteei zuzendua”

en. Kalean zeuden pertsonen irtenbide bat emateko antolatuta ziren gune horiek. Kontua da egoera luzatzen hasi zela eta baldintza kaxkarretan zeudela, pilotuta. Donostia, Bilbo eta

Gasteizko gune horietan zeuden pertsonen profilak osatu eta mapa bat egin zen. Horren arabera, ekintza plan bat adostu zen. Batetik, laguntza ekonomikoak zehaztu ziren eta, bestetik, aterpe bat eskaini zitzaizkien.

Atzerriko gazteen bizi kalitatea hobetu asmoz, *Lehen urratsa* ekimena jarri zen martxan. Etxebizitzarik gabe eta oso egoera kaxkarrean zeuden gazteei zuzendua. Gipuzkoan, Peñasal fundazioarekin batera ari gara lanean eta proiektu beraren parte gara. Zabalduz

kooperatiba gisa zortzi plaza kudeatzen ditugu guk Usurbilen. Peñasal fundazioak beste 16 plaza kudeatzen ditu Tolosaldean.

Usurbilen artatuak izan diren zortzi gazteak nongoak dira?

18 eta 27 urte bitarteko gazteak dira denak. Ezaugarri komun batzuk dituzte: mutilak dira eta atzerritik iritsi ziren guregana. Usurbilgoei dagokionez, bat aljeriarra da eta gainontzeak marokotarrak dira. Pandemia lehertu zenean, kalean bizi ziren denak.

“Usurbilgo Parrokiak asko erraztu dizkigu gauzak”

NOAUA! Etxebizitza bat eskaintzeaz gain, bestelako laguntzarik eskaini al zaie?

Mikel Castander: Maila administratiboan, gehienek arazo handiak dituzte. Batzuk ez dute erresidentzia bamenik edota ez daude egoera legal batean. Eta hau oztopo bat da lan munduan txertatzeko garaian. Egoera irregularrean daude eta, horrelakoetan, egoera legezatzeko denbora behar izaten da.

Bien bitartean, formazioa

eskaintzen zaie. Batzuk oso oinarritzkoak dira, zeren kontuan izan gazte hauetako batzuk iritsi berriak direla eta zailtasunak dituztela gaztelaraz edo euskaraz komunikatzeko. Baina badira maila goreneko graduak ikasten ari direnak. Eta beste gazte batzuk kualifikazio altuko ikasketekin iristen dira hona baina egoera irregularrean daudenez, lan munduan murgiltzeko zailtasun handiak dituzte.

Usurbilen, Salvatore parrokiak utzitako bi etxebizitzetan bizi dira zortzi gazteak. Eliza ere inplikatu da egitasmo honetan, ezta?

Usurbilgo parrokiak asko erraztu dizkigu gauzak. Presuntasun handia erakutsi du beti. Ibon Alberdi apaizarekin harremana oso ona izan da hasieratik. Borondate ona eta sentsibilitate berezia erakutsi du. Horrelako jarrera oso lagungarria izateaz gain, oso garrantzitsua da guretzat.

“Mutilak oso eskertuta daude”

Eta gazteek, zer diote?

Mutilak oso gustura daude Usurbilen. Hilabeteotan hainbat esames izan dira. Badakizu, zerbait gertatzen denean denak zaku berean sartzeko joera dugu. Baina iritsi zirenetik, gazte hauek ondo ari dira. Ez dute arazorik eman eta partehartzeko gogoz daude. Gainera, oso eskertuta daude Usurbilen eskaini zaien guztiarekin.

“Patera batean iritsi ginen Europara”

Pandemia hasi zenean, Eusko Jaurlaritzak Lehen urratsa izeneko programa abiarazi zuen. Usurbilen, Zabalduz izeneko kooperatiba arduratzen da gazteen eguneroko martxaz. Eurek jarri gaituzte Saad eta Kamaalekin harremanetan. Covid-19aren krisia lehertu zenean, kale gorrian bizi ziren, Donostian. Gaur egun, Usurbilgo etxebizitza batean bizi dira. Pozik eta esker onez sumatu ditugu.

NOAUA! Zenbat denbora daramazue hemen bizitzen?

Saad: Duela zortzi hilabete etorri nintzen ni, ekainean.

Kamaal: Ni abuztuan.

Ikasteko edo lanerako aukerarik ba al duzue?

Kamaal: Bai, badugu horretarako aukera.

María, Zabalduz kooperatibako langilea: Saad gaztelera ikasten ari da. Kamaalek menderatzen du gaztelera eta orain iturgintza eta elektrizitatea ikasten ari da Erreterian, Peñascal fundazioaren eskutik.

Saad: Nik ere sukaldaritza ikastaro bat egin nuen Tolosan, Peñascal fundazioari esker.

María: Lanerako aukerarik ote



Kamaal eta Saad, NOAUA'rekin elkartu diren bi gazteak. Guztira, zortzi dira Lehen urratsa programaren bitartez Usurbilera bizitzera etorri direnak.

SAAD

“Usurbil herri lasaia da eta jendea oso ondo portatzen da gurekin. Errespetatuak sentitzen gara”

duten galdetu duzu. Lehenik hiru urte egin behar dituzte bertan. Hiru urtez hemen bizitzen egon direla demostratu eta gero lor dezakete lanerako baimena. Horregatik, une ho-

netan ezin dute lanik egin. Eta horrek askok zailtzen ditu gauzak. Gure artean hiru urte egin arte, ahal dutena egin behar dute bizirik irauteko.

Erresidentzia-agirik edo baimenik ba al dute?

María: Ez. Beraien egoera irregularra da. Mutil hauetako batzuk lan eskaintzak jaso izan dituzte. Enpresari batzuk praktiketan ezagutu dituzte eta lanean finak direla ikusi dute.

Kontratatu nahi izan dituzte baina egoera irregularrean daudenez, ezin diete lan kontraturik egin.

Kamaal eta Saad, zein herrialdeetakoak zarete?

Kamaal: Beni-Mellal hirikoa naiz. Marokoren erdigunean dago.

Saad: Ni ere Marokokoa naiz, Youssoufia herrikoa.

Nola heldu zineten hona?

Saad: Patera batean ailegatu nintzen Espainiara. Lau egun egin nituen itsasoan.

Kamaal: Ni ere patera batean heldu nintzen. Nik 10 ordu egin nituen itsasoan.

Pisuetan zaudeten guztiak horrela iritsi al zineten?

Kamaal: Bai, gehienak horrela iritsi gara hona.

Kontaktua mantentzen duzue familiekin?

Kamaal: Bai, noski.

Eta, zer kontaktzen diezue zuen etxekoei?

Saad: Oso gustura gaudela hemen. Herri lasaia da eta jendea oso ondo portatzen da gurekin. Errespetatuak sentitzen gara.

“Oso gustura bizi gara hemen”

NOAUA! Usurbilgo etxebizitza hauetara etorri aurretik, non bizi zineten?

Saad: Covid-19arekin itxialdia ezarri zenean, kalean nintzen eta Donostiako Atano frontoira joateko aukera izan nuen. Lau hilabete egin nituen bertan. Baina ekainetik Usurbilgo pisu batean bizi naiz.

Kalean bizi ordez, etxebizitza batean egoteko aukera duzu orain.

Saad: Bai, orain etxebizitza

batean bizi naiz eta ikasteko aukera dut.

Eta zu, Kamaal?

Kamaal: Ni 2019an iritsi nintzen eta adin txikikoentzako egoitza batean egon naiz. Abuztuan etorri nintzen Usurbilera.

Egunen batean bukatuko da pandemia. Egun hori iristean, zer egingo duzue? Beste herri batera joateko asmorik al duzue?

Saad: Nik Usurbilen jarraitu nahiko nuke bizitzen. Hiru urte dira Marokotik atera nintzela eta kalean bizi izan naiz orain arte. Europara iritsi nintzenetik, etxebizitza batean bizi naizen lehen aldia da hau.

Sukaldaritza ikasketak dituzu. Sukaldari gisa lan egin nahiko zenuke?

Saad: Bai, gustura arituko nintzateke sukaldari lanetan.

Eta zu Kamaal, zer asmo di-

tuzu?

Kamaal: Hemen jarraitu nahiko nuke bizitzen. Oso gustura nago iturgintza eta elektrizitatea ikasten (Erreterian). Bi ikasturte dira eta lehenengo mailan ari naiz orain.

Amaitzeko, usurbildarrei zer esango zeniekete?

Kamaal: Jende ona direla eta oso gustura bizi naizela hemen.

Saad: Nik ere gauza bera esango nieke.

SAGARRONDOTIK SAGARDORA 2021

Kimaketa
Praktikak
Bertako
Sagastietan
Egingo dira!

Martxoak 12, OSTIRALA

FRUITU ARBOLEN UDABERRIKO EDO
ZOTZEKO TXERTAKETA.

Josu Osa

Neguko txertaketari buruzko ikastaro teoriko-praktikoa. Josu Osa adituaren eskutik, 8 txerto mota baino gehiago ikasiko ditugu. Usurbilgo Potxoenea Kultur Etxean. Prezioa: 15€.

ORDUTEGIA: 15:30-18:30 Potxoenea

Martxoak 18, OSTEAGUNA

SAGASTIEN NEGUKO KIMAKETA,
GAIXOTASUNAK ETA TRATAMENDUAK
Aitor Etxeandia

Aitor Etxeandiaren eskutik, neguko inausketa, ongarriketa eta gaixotasunak azalduko dira. Prezioa: 15€.

ORDUTEGIA: 15:30-18:30 Potxoenea

SARRERAK: aldez aurretik
usurbilkultura.eus plataforman eta
alkartasuna.eus web orrian.





Usurbilgo udal-gobernua

Eredu propioaren alde

Hondakinen kudeaketa usurbildarren eta udalaren urte luzee-tako lan-ildo garrantzitsua izan da. Egindakoak asko du sortzetik: harrokeriarik gabe, eta zer hobetua badela jakinda, eredu alternatiboa sortzen aitzindari izan gara. Egindakoak asko du, baita ere, kontra egitetik: aldundiaren eta GHKren bidez inposatu zaigun eredu neoliberal suntsitzailearen aurka aritu eta ari gara, parte hartzeko aukera dugun erakundee-tan, herri-mugimenduekin elkarlanean eta epaitegietan, besteak beste. Ordea, gure ahaleginak ez direla aski izan, oraingoz, Gipuzkoan natura, osasuna eta interes publikoa lehenetsiko dituen hondakinen tratamendua martxan jartzeko.

Udalak hitz eman zuen aztertuko zituela bere esku zeuden aukerak GHKren morrontzatik aparteko bidea egiteko. Baita aztertu ere. Ondorioa garbia da: ez dago baldintza juridiko-ekonomiko-teknikorik bide propio horri heltzeko. Eta ez dago aukerarik arrazoi simple batengatik: Gipuzkoan agintzen dutenek sekulako ahala eta tresneria dutelako gurea eragozteko. GHKren ereduak ez da soilik erraustegian oinarritzen: arauen sare oso bat



“Usurbil 0.0 da gure ibilbide-orria, eta beste hainbat helbururen artean, 0 errefusa sortzea da xederik behinena”.

UDAL-GOBERNUA

**“Gaur-gaurkoz
erraustegira
errefusik ez eramateko
modu bakarra
hauxe da:
jatorrian ez sortzea”**

dute foru-arauen, Hiri-Hondakinen Plan Integralaren eta GHKko barne-arautegiaren artean, gipuzkoarrok geure hondakinak GHKren esku uztera behartzeko. Azterketak erakutsi du gaur-gaurkoz bideraezina dela zepo horretatik ihes egitea. Are, keinu txikiena eginez gero, egoeraren kontrola GHKren esku geratuko litzateke, nahierara gestiona dezan prozesu osoa. Ez da bakarrik ez geniokeela aurre egingo errauste-plantari, baizik eta galtzailearen rola jokatzen kondenatuta geundekeela, orain arte egindako guztia arriskuan

jarriz.

Adibide gisa jarri ohi da atez atekoa martxan jarri genueneko, baina gogora dezagun orduan oinarri juridiko-teknikoa bageneukala, eta babestuta abiatu genuela ezartze-prozesua, bestela bideraezina izango litzateke-eta.

Udalak gaur, azkeneko urteetan bezala, hondakinak atez ate biltzen segitzen du, eta gaur, azkeneko urteetan bezala, gure kamioiek puntu jakinetan uzten dituzte hondakinak. Puntu horietan GHKk jasotzen ditu, eta hortik aurrerakoa ez dago gure esku. Gure jokabidean ez dago aldaketarik, eta are gutxiago dago isilpean gorde edo ezkutatu den ezer. Ez dakienik baldin bada: gure hondakinak zabor-tegi kutsatzaileetara eraman izan dira, Gipuzkoara, Bizkaira eta Kantabriara; eta orain sortzen dugun errefusa Zubietako errauste-plantara eramaten da.

Haserretu egiten gaitu, bai, baina gure gogoz kontrako jokabidea da: ez herritarrok ez Usurbilgo Udalak ez dugu hori erabaki. Hori bestek erabaki dute.

Idatzi bat jaso dugu udalean, non eskatzen zaigun ez elikatzeke erraustegia hondakinez, eta ez babes-teko diruz. Badakigu 166 sinatzaile horiek baino askoz gehiago garelako erraustegia inola ere babestu nahi ez dugunak. Horregatik, jarraitzen dugu gure eredu propioan sakontzen. Usurbil 0.0 da gure ibilbide-orria, eta beste hainbat helbururen artean, 0 errefusa sortzea da xederik behinena. Horixe da, gaur-gaurkoz, erraustegira errefusik ez eramateko modu bakarra: jatorrian errefusik ez sortzea.

Gipuzkoan bestelako eredu bat sortzeak udal soil baten ahaletik areago doan estrategia landua eskatzen du. Ezinbestekoak dira gutxienezko baldintza batzuk, adibidez, eragileen eta sektore sozio-politikoaren adostasun oinarritzakoa eta indar-metaketa, eta herrialde mailako erabaki-guneetan eragiteko aukera izatea, egungo antolaketa juridikoari bestelako izaera emateko. Lan-ildo horri ez diogu uko egin orain arte, eta ez diogu uko egingo aurrerantzean ere.

Okindegia-Gozotegia
LABE-GOXO

txirriStra
TABERNA

-Plater konbinatuak
-Ogitartekoak
-Pintxoak

Kontseju zaharra, 13 Tel 943 36 04 66

Patxi
Patriña
Jatorria

· bazkariak EGUNERO
· afariak. ostegunetik larunbatera

© 943 362725 · © 688 690 361

Itziar Basterrika: “Martxoaren 8aren bueltan hainbat gauza jarri ditugu martxan”

Martxoaren 8a geruratzen ari da eta Usurbilgo Udalak hainbat ekitaldi antolatu ditu. Itziar Basterrika zinegotziak aurtengo egitarauari buruzko xehetasunak eskaini dizkigu.

NOAUA! Parekidetasuna eta zaintza izango dira legealdi honetako ardatz nagusiak, ezta?

Itziar Basterrika: Hori da. Urte handia dugu aurretik, ekitaldiz josita. Eta Martxoaren 8aren bueltan hainbat gauza jarri ditugu martxan.

Martxoaren 6an larunbata, Emakumeen Etxeari lotutako parte-hartze prozesuak eman duena aurkeztuko dugu. Egia da Kalezarreko auzotarrek ere beren beharrak dituztela. Horregatik, Emakumeen Etxea izateaz gain, auzotarrentzako ekipamendua ere izango da Pelaiotena eraikina. Bi beharrak asetuko dituen gune bat izango da.

Emakumeen Etxeari lotutako parte-hartze prozesuaren emaitzak emango dira ezagutzera larunbatean. Ze inpresio hartu duzue udaletxean?



Itziar Basterrika zinegotziak aurtengo egitarauaren inguruko xehetasunak eskaini dizkigu.

EMAKUMEEN ETXEA, PARTEHARTZE PROZESUA

“Martxoaren 6ko ekitaldiarekin ziklo bat itxiko dugu. Jende askok hartu du parte eta ekarpenak egin dituzte”

Jende askok hartu du parte, oso gustura parte hartu ere.

Ekarpenak egin dituzte eta martxoaren 6ko ekitaldiarekin ziklo bat itxiko dugu.

Prozesua emankorra izan da hortaz.

Ez da beti jende kopuru berdina egon. Jende ezberdina pasa da eta hori aberasgarria izan da. Hurbildu direnek parte hartu dute eta, zentzu

horretan, parte-hartze prozesua aberatsa izan da. Egoitza beharrezkoa zela ikusi da.

Lehen aipatu dudana bezala, auzotarrek ere beren beharrak zituzten eta gune baten premia zuten auzo bezala elkartu ahal izateko. Lanketa bat egin da bi ideiak uztartzeko eta esango nuke helburuak bete direla.

“Apirilean zaintzari buruzko prozesua abiaraziko dugu”

NOAUA! Emakumeen Etxearen inguruko parte-hartze prozesua amaitu berritan, zaintza ereduari buruzkoa iragarri duzue apirilerako.

Itziar Basterrika: Aste Santuaren ondoren jarri nahi dugu martxan. Egun hauetan herriko eragile ezberdinekin ari gara lanean, euren ikuspuntuak jasotzen. Eta apirilean, Aste Santuko oporren bueltan, parte-hartze prozesuan izena emateko aukera zabalduko da.

Une honetan puri-purian den gaia da, zaintzarena.

Parte-hartze prozesuak zer nolako zaintza eredu nahi dugun argitzeko balioko du. Etorkizun batean nola nahi dugu zainduak izan? Horretaz hausnartu nahi dugu.

Bestetik, konfinamendura eraman gaituen pandemia honek zer pentsatua eman digu. Adineko jendea, zahar egoitzetan bizi dena, gela batean konfinatuta egon da. Etxeko

inongo erreferentziarik gabe. Etxebizitza bat, zuk zure modura egiten duzu. Baina adinekoen egoitza batera zoazenean, gela ziztrin bat duzu. Bakarrik edo beste batekin konpartitu behar duzu eta ez duzu zuretzat berezia den detailek. Espazio fisiko huts bat da. Eta horri buelta bat eman behar zaio. Horri buruz hausnartu nahi genuke. Matia Kalezarren erakitzen ari den egoitzari lotuta egongo da hausnarketa.

Gobernu-talde honentzat, jatorri aniztasuna eta elkarbizitza lan lerro garrantzitsuak dira ere, ezta?

Hala da. Aztikerrek azterketa bat egin zuen. Diagnostiko horrekin eta jaso ziren ekarpenekin udaletxeak garrantzitsua ikusi zuen ikusentzunezko lan bat egitea. Eta ikusentzunezko hori martxoaren 27an proiektatuko dugu. Ondoren aitortza ekitaldi bat egingo da.

Simone de Beauvoirren 'Bigarren sexua' liburua hizpide izango dute martxoaren 11n Potxoenean

NOAUA! Emakumeen Nazioarteko Egunari lotuta, Simone de Beauvoirren *Bigarren sexua* liburuari buruzko solasaldia antolatu duzue Potxoenean.

Itziar Basterrika: Hala da. Irene Arrarats Lizeagak Simone de Beauvoirren *Bigarren sexua* (Eskafanda bilduma) ekarri zuen euskarara. Martxoaren 11n liburuari buruzko hitzaldia eskainiko du Potxoenean. Liburu honetan oinarrituz, Iratxe Fresnedak eta Nora Alberdik *Collage* izeneko film laburra osatu zuten eta lan hori ere ikus ahal izango da Potxoenean.

Bestetik, martxoaren 17an literatur solasaldi bat egingo da Sutegin. Kattalin Minerrek gidatuko du eta Amek ez dute (Elkar) liburua izango dute hizpide. Liburuari buruzko hausnarketa bat egingo da, ikuspuntu feminista batetik.

Eta aurrerago, Ainara Gorostizuren ikastaro bat antolatuko dugu, *Amatasun bizigarria* izeneko. Otsailean zegoen iragarria baina atzeratu egin da. Aurrerago antolatuko dugu.

Martxoak 6, larunbata

■ Emakumeen Etxearen inguruko parte-hartze prozesuko emaitzen aurkezpena eta eskertza ekitaldia.

Babes Zibileko Merezimenduaren domina DYAr

DYAk Babes Zibileko Merezimenduaren domina eskuratu du. "Gure boluntarioei eginiko aitortzen garrantzitsua da, herritarrak lagundu eta babesteko egiten duten lana eskertzeko balio duena". Joxepo Artola usurbildarra DYako presidenteordea da eta Denis Itxaso Espainiako Gobernuako ordezkariaren eskuetik jaso zuen domina.



Irene Arrarats (erdian, mikrofonoa eskuan) Simone de Beauvoirren *Bigarren sexua* liburua itzuli zuen. Martxoaren 11n Potxoenean izango da, itzulpen lanari buruz hizketan. *Collage* film laburra ere eskainiko dute ekitaldi horretan.

MARTXOAREN 11N POTXOENEAN

'Bigarren sexua' liburuaren inguruko solasaldian zehar 'Collage' film laburra eskainiko dute

■ 12:30ean Pelaiotxoa eraikinean, Kalezarreko Felix Aizpuru plaza (euria egingo balu, Sutegin).

Martxoak 11, osteguna

■ Simone de Beauvoirren *Bigarren sexua* (Eskafanda bil-

duma) eta *Collage* filmaren inguruko solasaldia, Irene Arraratsen eskutik.

■ 19:00etan Potxoenean.

Martxoak 27, larunbata

■ Mundualdiaren edizio berezia. Aztikerren ikerketaren emaitzak emango dira ezagutzera eta Usurbila etorritako migranten lekukotzekin sortutako dokumentala eskainiko da.

■ Aitortza ekitaldia.

Apirilean (eguna zehazteke)

■ "Nola zaindu", zaintza eredu berregituratzeko parte-hartze prozesua.

Martxoaren 17an, solasaldi literarioa liburutegian

Katixa Agireren *Amek ez dute* (Elkar) eleberria hizpide izango dute martxoaren 17an udal liburutegian.

Kattalin Minerrek gidatuta

Usurbilgo berdintasun sailak eta Sutegi udal liburutegiak elkarlanean prestatutako saioa izango da. Martxoaren 17an, arratsaldeko 18:00etan. Kattalin Miner idazleak gidatuko du solasaldia. Oraindik badituzte hainbat ale eskuragarri.



"Gure boluntarioei eginiko aitortzen garrantzitsua da, herritarrak lagundu eta babesteko egiten duten lana eskertzeko balio duena".

Mugi txartela, Araban ere erabilgarri

Mugi txartelarekin, gipuzkoarrek Arabako hiriarteko autobus garraio zerbitzu guztietan bidaiatu ahal izango dute. Neurri hau martxoaren 1etik dago indarrean. Erabilgaitzak, arabarrek bezala, %20ko deskontua jasoko dute ibilbide bakoitzeko. Xehetasun gehiago Foru Aldundiaren web orrialdean jaso daitezke: gipuzkoa.eus

Ate Irekiak Usurbilgo Lanbide Eskolan: “Aldez aurretik ordua hartzea ezinbestekoa izango da”

Herriko ikastetxeetan lanean hasi zirela badira hilabete batzuk, eta eskoletan kurtso erdira iritsi diren honetan, Usurbilgo Lanbide Eskolan ‘ate irekiak’ antolatu dituzte hilaren 10erako. Datorren kurtsoa buruan izango dute zenbaitek, eta muzin egiterik ez daukaten zita izango da asteazkenekoa. Erdi mailan interesa dutenek 17:00etan izango dute hitzordua, eta goi mailakoek 18:00etan. Kontuan izan hitzordua aldez aurretik hartu beharko dela 943 364 600 telefono zenbakian edota adkomunikazioa@lhusurbil.eus helbidean.

NOAUA! Nolakoak izango dira aurtengo ‘ate irekiak’?

Usurbilgo Lanbide Eskola: Aldez aurretik ordua hartzea ezinbestekoa izango da parte hartu ahal izateko. Printzipioz modu presentzian egingo ditugu aurtengo ate irekiak pandemiaren egoera hobera doala ikusita. Izena ematerako orduan adierazi beharko du bakoitzak zein ziklotako izen-ematean daukan interesa, ondoren guk taldeak antolatzeko. Gisa horretara, bakoitzak interesatuta dagoen zikloari buruzko in-



Martxoaren 10erako antolatu dute. Erdi mailakoa 17:00etan hasiko da eta goi mailakoari dagokiona 18:00etan.

USURBILGO LANBIDE ESKOLA

“Ikastetxea ezagutzeko tour txiki bat antolatu dugu, instalazioak ikusi ahal izateko”

formazio zabalagoa jasotzeko aukera izango du. Gero, ikastetxea ezagutzeko tour txiki bat antolatu dugu instalazioak ikusi ahal izateko.

Datorren ikasturteari begira, hau izango litzateke aukera bakarra edo aurrerago ere antolatuko dituzue?

Gehiago ere izango dira. Nor-

malean maiatzean egiten ditugu berriz. Lanbide Heziketako aurrematrikula ekainean izaten da, eta beraz, ordurako erabaki bat hartzeko denbora behar dute ikasleek. Joan den urtera arte, maiatzean baino ez genituen egiten ate irekiak, baina orduan erabaki genuen otsailan beste deialdi bat egitea. Batxillerreko eta unibertsitateko ate irekiak ere orain izaten dira, baita aurrematrikula egiteko garaia ere.

Ez da erraza izaten 16-18 urterekin etorkizuna marraztea eta gisa honetako erabakiak hartzea, eta zer gutxiago informazio ahalik eta osoena mahai gainean izatea baino.

Zein da datorren kurtsoarako eskaintza?

Erdi mailako bost ziklo eskaintzen ditugu: Administrazio Kudeaketa, Instalazio Elektriko eta Automatikoak, Hozteko eta Girotzeko Instalazioak, Beroa sortzeko Instalazioak eta Mekanizazioa. Goi mailakoak, berriz, sei dira: Administrazioa eta Finantzak, Automatizazio eta Robotika Industrialak, Fabrikazio Mekanikoko Produktzioaren Programazioa, Fluido Instalakuntzen eta Instalakuntza Termikoen Mantenua, Energia Eraginkortasuna eta Eguzki Energia Termikoa eta Energia Berriztagarriak.

“Martxoaren 5ean hasiko dituzte praktikak”

NOAUA! Aurtengo kurtsoaren bigarren erdira heldu gara eta askorentzat praktikak egiteko garaia da. Oztopoak izan dituzue enpresak aurkitzeko aurtengo egoera nahasi honen ondorioz?

Usurbilgo Lanbide Eskola: Martxoaren 5ean hasi dituzte praktikak aurten. Normalean baino arazo gehixeago izan ditugu enpresa asko ERTEn baitaude, eta beste asko momentu zailak pasatzen ari dira. Azkenean, ordea, ikasle-

guztientzat praktikak aurkitu ditugu. Beste batzuk, berriz, aurreko kurtso amaieratik lanean hasita zeuden jada DUALarekin. Goizez klaseetara etortzen ziren, eta arratsaldean lanera joaten ziren. Praktikei lotuta, azkeneko urteetan aukera berri bat eskaintzen hasi gara. Lehen kurtsoa hasi bezain laster praktikak egiteko aukera eskaintzen dugu. DUALaren estiloko zerbait da, baina bigarren kurtsoan egin beharrean zikloa hasi bezain

laster egin daiteke. Arratsaldez sei orduko praktikak egin daitezke enpresan.

Aurten zer gertatu da Erasmusekin?

Aurten ez da Erasmus eskaintzarik izan, eta 2021eko ere ez doa aurrera. Guk apustu sendoa egin ohi dugu Erasmusen alde esperientzia hori bizi dezaten gure ikasleek eta lan esperientzia hartu. Lanbide Heziketako Erasmus horixe izaten baita, atze-

rrian praktikak egitea. Joan zen urtean Erasmusik gabe geratu ziren batzuk pandemiaren dena hankaz gora jarri zuenean oraindik joateko baitzeuden, beste batzuk itzuli egin behar izan zuten egun gutxiren buruan, eta tira, egoera desberdinak azaleratu ziren. Hala ere, gu lanean ari gara kanpoko erakundeekin hartuemanean Eusko Jaurlaritzak berriz ere baimenak ematean Erasmus martxan jartzeko.

ETXEBIZITZA**Salgai**

Etxebizitza salgai, kale Nagusia 39, udalxte aurrean. 58m (bi logela) eta garaje itxia prezioan barne. 649850515.

91m² pisua salgai Txaramun- to kalean. 3 logela, sukaldea, 2 komun, egongela. 11m² terraza, 8m² trastelekua, 24m² garajea erosteko aukera. 678949958.

Etxebizitza salgai Kalezarren: 79m² berriua, 2 gela, komuna, sukaldea, jangela, egongela, harrera. Dena kanpoaldera. Ganbara handia partekatua. 35m² garajea aukeran. 686462705

Alokairuan

Alokatzeko etxe baten bila ari naiz. Bi pertsona gara eta txakurra daukagu. 675189500

Alokatzeko etxe baten bila ari naiz. Bi pertsona gara eta txakurra daukagu. 675189500

MOTORRA**Salmenta,****garajeak**

Garage bat alokairuan, 22m²

Santuenean. 671547567.

Volkswagen Caravelle, 2011koa, salgai. 677642776.

Atxegalden garaje bat nahiko genuke alokairuan edo erosteko. 628498326

LANPOSTUAK**Lan eskaintzak**

Emakume bat behar da umeak zaindu eta etxeko garbiketa egiteko; Familia zamarik gabekoa. Haurren zaintzan esperientzia izatea beharrezkoa. Nahiago da euskara ondo menperatzen dabilen pertsona izatea. 638738505

Game Masterra behar dugu Quantum Escape Room-en. Gaztea bazara, eta jokoak nahiz ihes gelak gustatzen bazaizkizu bidali CV info@quantum.eus helbidera

Txiribogan asteburuetarako lan-gileak behar dira. Interesatuok hona deitu: 629 951 931.

LANPOSTUAK**Lan eskaerak**

Interna moduan pertsona helduak zaintzeko prest. 14 urteko esperientzia, erreferentzia onak.

Profesionaltasun ziertagiria. 667907196

Pertsona helduak zaintzeko edo etxeko lanak egiteko lan bila nabil. Orduka egingo nuke lan. 632557858

Karrozero ofiziala. Txapa eta pintura lanak egiten ditut lan bila nabil. 610346085

Erizaina, pertsona helduak zaintzeko edo etxeko lanak egiteko prest. Interna edo externa moduan. 610827729 / 610346085

Emakume euskalduna eta arduratsua garbiketa lanak egiteko, edo umeak zaintzeko. 699 72 53 34

Pertsona helduak zaintzeko lan bila nabil. Profesionalitate ziertagiria daukat. Interna moduan edo esterna moduan. 609647728

Familia kargarik ez duen mutil arduratsua, helduen zaintza lanetan aritzeko. Egun osoz edo orduka. Berehalako disponibilitatea. 697820143

Erizaintzako laguntzailea naiz eta lan bila nabil. Etxeko lanak, pertsona helduak zaintzeko prest.

626388531

Lan bila nabil. Orduka, externa... Umeak edo helduak zaintzeko ala garbiketa lanak egiteko. Lan baimena dut: 643967056.

Lan bila nabil. Gaztea, ostalaritza ikastaroa egina dut. Lan baimena dut: 602531759.

Helduak zaintzen esperientzia duen neska bat naiz eta lan bila nabil, orduka, esterna edo interna moduan. 603315126.

Emakume bat eskaintzen da umeak, adineko pertsonak eta etxeko lanak egiteko. Informekin 658706345 / 602568090.

24 urteko neska gaztea. Arratsaldez umeak zaintzeko eskeintzen da. 695617001

Emakume usurbildarra naiz eta lan bila nabil, umeak zaintzeko edo etxekolanak egiteko. 627184674.

Ingeleseko irakaslea naiz baina bestelako lanak egiteko ere prest dagoen emakumea naiz. Etxeko lanak, umeen zaintza edo helduena. 631746521.

Pertsona helduak zaintzeko

emakume bat eskaintzen da. Interesatuak deitu: 631 489 128.

BESTELAKOAK

Salgai termomix mod TM 31 oso berria 618094968

Laboraleko kartila bat galdu dut Antxetatik Atxegalderako bidean. Topatzen baduzu asko eskertuko nizuke Udaltzaingora eramatea edo ondorengo telefonora deitzea: 629 475 343.

Usurbil inguruan baratza lantzeko lur sail baten bila nabil. 606601235

Egur eta ikatz sukalde ekonomika salgai. Deville markakoa. Barruan labe handi bat, labearen azpiko tiradera eta errautsak biltzeko gaitasun handiko bandejarekin. 696763868/699723314

TRUKEAN, OPARI

Inprimatzaileak, telebistak, patineteak, liburuak... Atalluko Garbigunean, doan hartu daitzeku. Astelehenerik ostiralera: 10:15-13:00 / 16:00-19:00. Jai egunak ez diren larunbatean: 9:00-13:00.

**Zorionak Nahia!**

Disfrutatu eta oso ondo ospa ezazu 10 urte betetzen dituzun eguna. Familikoan partez hamaika muxu!

**Zorionak Jon eta Iera!**

Ondo-ondo pasa eta ospatu zuen urtebetetze egunak! Muxu asko-asko familia osoaren partez!

**Zorionak Haitz!**

Martxoaren 5ean 4 urte beteko ditu. Zorionak izeba, osaba eta lehengusuen partez!

**Zorionak Mariangeles Arruti Iceta (Aia) eta Jose Juan Murua Iribar (Aginaga)!**

Aiako San Esteban parrokian ezkondu ziren 1971ko martxoaren 6an. Zorionak elkarrekin egindako 50 urte hauengatik! Ondo ospatu etxekoekin.

Heriotzak

Trinidad Pellejero Ezama

Otsailaren 24an hil zen, 86 urterekin

Goardiako farmaziak

Osteguna 04 URBISTONDO San Franzisko 1. Lasarte

Ostirala 05 GANDARIAS-URIBE Iñigo Loiola 9. Lasarte

Larunbata 06 DE MIGUEL Kale Nagusia 32. Lasarte

Igandea 07 DE MIGUEL Kale Nagusia 32. Lasarte

Astelehena 08 ORUE Jaizkibel plaza 2. Lasarte

Asteartea 09 DE MIGUEL Kale Nagusia 32. Lasarte

Asteazkena 10 LASA SUQUIA Kale Nagusia 42, Lasarte

Gainontzeko datak www.cofgipuzkoa.com web orrian dituzue ikusgai.

Osteguna 11 GIL MARTIN Kale Nagusia 24. Lasarte

Ostirala 12 ACHA-ORBEA Hipodromo etorbidea, 6. Lasarte

Larunbata 13 LASA SUQUIA Kale Nagusia 42, Lasarte

Igandea 14 LASA SUQUIA Kale Nagusia 42, Lasarte

LARUNBATETAN,
Usurbilgo bi farmaziak ireki-
ta egongo dira: 9:00-13:30

GOARDIAKO FARMAZIA, GAUEZ

ETXEBARRIA AZUETA, AITZIBER
Andre Kalea, 48 "Cuevas"
943 55 17 93

Agenda martxo

03 asteazkena

■ **36ko gerra Usurbilen.** Boluntarioen taldean parte hartu nahi duten usurbildarrentzat bilera irekia. 18:30ean Artzabalgo areto handian. Interesatuak izena eman behar dute lehenbizi, e-posta bat bidaliz: 36kogerra@usurbil.eus

06 larunbata

■ **Emakumeen Etxeari buruzko parte-hartze prozesuaren inguruko aurkezpena.** 12:30ean Pelaiotenea eraikinean, Kalezarren.
 ■ **"Reboiras: acción y corazón" dokumentala.** 17:00etan Sutegin. Sarrera doan, usurbilkultura.eus atarian eskuragarri.

07 igandea

■ **'Alfonbra magikoa' filma.** 17:00etan Sutegin. Sarrera 3 eurotan eskura daiteke usurbilkultura.eus atarian.

"Alfonbra Magikoa", igandean haurrentzako zinema Sutegin

Mila eta bat gau ipuineko kontakizun honek herrixka bateko mutiko baten ibilerak dakartzigu. Bere ahuntz leiala, alfonbra hegalaria bat eta hiri handiko kaleetan bizi den neskatila bat lagun dituela, munduan barrera abiatuko da eta hainbat etsai garaitu beharko ditu.

Martxoak 7, igandea

■ 17:00etan Sutegin.
 ■ Sarrera 3 eurotan eskura daiteke usurbilkultura.eus atarian. Kopuru mugatua izango da.

"Reboiras: acción y corazón" dokumentala

Ramón Reboiras Noia "Moncho" 25 urte besterik ez zituela hil zuten 1975eko abuztuaren 12ko goizaldean. Dokumentalak haren erretratu modukoa egiten du. Frankismoaren diktadurako poliziak 1975ean hildako nazionalista galiziar gazte honen bizitza eta pentsamendua birsortzeko aukera ematen du.

■ Martxoak 6 larunbata, 17:00 Sutegin.
 ■ Sarrerak: Doan. Sarrera kopurua mugatua da. Sarrerak aldeztatik usurbilkultura.eus bidez eskuratu daitezke.
 ■ Antolatzailea: Tadamun elkarte.



Sarrera 3 eurotan eskura daiteke usurbilkultura.eus atarian.

"Txerto emozionala" hitzaldia, online

Nerea Mendizabal psikopedagogoaren hitzaldian konfidantza, poza, itxaropena eta maitasuna izango dira hizpide nagusi. Balio horiek ez galtzeko eta behar bezala pizteko giltzak ere eskainiko ditu. Hitzaldia online emango dute. Pantailatik jarraitu ahal izateko zehaztasun guztiak esteka honetan topatuko dituzue: udarregi.eus/eu/gurasoak/guraso-eskola

■ Martxoak 8, 17:30. Euskaraz.
 ■ Martxoak 22, 17:30 (hezitzaileentzat).
 ■ Apirilak 26, 17:30. Gaztelaniaz.
 ■ Antolatzailea: Hitz-Aho.

Datozenak

Martxoaren 8ari lotutako deialdiak

Martxoak 6, larunbata

■ Emakumeen Etxearen inguruko parte-hartze prozesuko emaitzen aurkezpena eta eskertza ekitaldia.
 ■ 12:30ean Pelaiotenea eraikinean, Kalezarreko Felix Aizpurua plazan (euria egingo balu, Sutegin).

Martxoak 11, osteguna

■ Simone de Beauvoirren *Bigarren sexua* (Eskafanda bilduma) eta *Collage* filmaren inguruko solasaldia, Irene Arraratsen eskutik.
 ■ 19:00etan Potxoenean.

Martxoak 27, larunbata

■ Mundualdiaren edizio berezia. Aztikerren ikerketaren emaitzak emango dira ezagutzera eta Usurbila etorritako migranteen lekukotzekin sortutako dokumentalaren proiektzioa egingo da.
 ■ Aitortza ekitaldia.



Irene Arrarats *Simone de Beauvoirren "Bigarren sexua" liburuaz jardungo du martxoaren 11n.*

Uraltz, s.l.
 Igeltseritza
 Orokorra

693 059 392
uraltz@uraltz.com USURBIL

ZALDIGAIN
 ERREMENTARIA

- Burnia, inox, altzairua eta corten altzairuarekin lan egiten dugu.
- Barandilak, balkoiak, eskailera dekoratiboak, solairuarteak....

www.zaldigain.com • info@zaldigain.com
 Tfno. 943593303 • Mugikorra: 677463867
 Fax: 943300045

ETXETRESNEN KONPONKETA-SALMENTA
 MARKA GUZTIAK

DESHUMIDIFIKADOREAK ERE BAI!
 645417665
 xabier

Inaki Iturgintza

BEROKUNTZA • GASA • AIRE EGOKITUA • ZORU BERO-EMAILEA
 ITURGINTZA • ENERGIA BERRITAGARRIAK

info@inakiiturgintza.com • www.inakiiturgintza.com
 600 024 825

Martxoak 14, igandea

NON DAGO MIKEL?

Dokumentalaren emanaldia.

Ordua: 18:00.

Non: Sutegiko auditorioan
Nori zuzendua: Gazte eta helduei

sarrerak: aldez aurretik salgai 6€tan
usurbilkultura.eus plataforman.

Bazkideek 4 €tan eskuratu ahal izango dute
sarrera bat NOAUA!ko egoitzan.

NON DAGO MIKEL?

ahötsa

IZAR
FILMS

noqua



LARRE-GAIN DOLARE SAGARDOTEGIA



Osasun neurri guztiekin
zuen zerbitzura

-Astelehenetan itxita-

Larre-Gain Baserria, EREÑOTZU-HERNANI
Tel: 943 55 58 46 / 616 287 867



ATE IREKIAK

Martxoak

10

HARTU
HITZORDUA!


Erdi Maila: 17:00

Goi Maila: 18:00

☎ 943 364600



adkomunikazioa@lhusurbil.eus



www.lhusurbil.eus

OSASUN GIDA 2021



USURBIL OPTIKA

Bigarren lente parean doan:
lente progresiboetan,
irakurtzeko lenteetan
eta ikus-urrunekeo lenteetan

2. lente parean doan

2x1

PROGRESIBOETAN
IRAKURTZEKOETAN
IKUS-URRUNEKOETAN

Zubiaurrenea. 10

☎ 943 370 269 • 675 708 654



Iturralde botika

Tomas Iturralde botika

33/17 PEZ.

- Dosifikazio sistema pertsonalizatua
- Dermofarmazia
- Produktu homeopatikokoak
- Maisu formulak

Borda berri 1, 20170 USURBIL 943 36 33 95

Haginak ondo dabiltzanean, sabela poz!

USURBILGO HORTZ KLINIKA

ANTTON BERNAL RUIZ DE OÑA
EKAITZ GARMENDIA MERINO

RPS: 28/17

Nagusia 10, 1.C4 943 37 08 78 USURBIL

zenta

ORTOPEDIA BAT BAINO GEHIAGO

Puntako teknologia zure
autonomiaren zerbitzura

- Laguntza produktuen salmenta eta alokairua.
- Etxez-etxeko zerbitzu tekniko espezializatua.
- Etxebizitzaren egokitzapena.

www.zenta.es

Osakidetzarekin
hitzarmena

Errekalde 59, Donostia 943 105 205

Kima

MASAJE LEKUA

· Kirol eta terapeutiko masajeak

Txirrindulariaren azterketa
biomekanikoa

☎ 943 366 197 Kale Nagusia, 44- behea • LASARTE-ORIA

Oinutsik

PODOLOGIA ETA POSTUROLOGIA

943 11 09 54

etorri zaitetz zure oinen eta posturaren
azterketa bat egitera!

Sustraitu osasuna oinetatik